

Kutxabankek bateratze teknologikoaren prozesua amaitu du

- **Kutxa iragan den asteburu honetan txertatu da egitura-informatiko bateratuan**
- **Kutxabankek duen posizio-hartze teknologiko bikainarekin bere sareek tresna eta irizpide komertzial amankomunak dituzte aurrerantzean**

Bilbo, 2013ko martxoaren 18a. BBK, Kutxa eta Vitalen sareen eta sistema informatikoen bateratze operatiboa burutu da, Kutxak 'Besaide' egitura teknologikoarekin bat egin baitu. BBK-k aurretiaz erabiltzen zuen tresna da hau, eta honekin txertatuta zeuden jadanik Vital Kutxa eta Kordobako CajaSur, hurrenez hurren 2013ko martxoaz eta 2012ko martxoaz geroztik, hain zuzen ere. Horrela, formalki duela urtebete hasi zuen sare komertzial desberdinen bateratze teknologikoaren prozesua amaitutzat eman du euskal finantza Taldeak.

Egitura informatiko bakar batean egin den txertatze-operatiboak hainbat aukera berri ekarriko dizkie BBK, Kutxa eta Vitali, tresna eta irizpide komertzial ber-berak erabili ahal izango baitituzte, eta etorkizunerako posizio-hartze teknologiko hobea izango baitute.

Aldaketa informatiko hau bilakaera teknologiko eta enpresarial handia eskatu dituen lanaren ondorioa da, eta Kutxabanken erabiltzaileei hainbat abantaila komertzial ekarriko dizkie, produktu eta zerbitzu eskaintza zabalagoa eskuragarri izateaz gain.

Azken asteburu honetan egin da Kutxaren egituraren eta 'Besaide' egituraren arteko txertaketa. Prozesuan ahalik eta gehien murriztu dira bezeroen eguneroko erabileran sumatu diren eraginak, eta era honetako prozesuetan ohikoak diren garrantzi txikiko gertakizun batzuk baino ez dira jazo. Bateratzean sortu diren egoera deserosoak sentitu egiten ditu Kutxabankek eta eragozpenengatik barkamena eskatu nahi die bere bezeroei.

Egitura amankomunarekin bat egin ondoren, Kutxako bezeroek beren kontu eta txartelak inolako arazorik gabe erabiltzen jarraitu ahal izango dute, eta bere horretan mantenduko dira bai helbideratzeak, zein jasotzeko eta ordaintzeko aginduak ere. Erakundeak xehetasun handiz eman dizkie jakitera bere bezeroei, norbanakoei eta enpresei, Kutxabanken Online Zerbitzuaren bitartez aritu ahal izateko zer nolako aldaketa-urratsak jarraitu beharko dituzten. Gainera, telefono bidezko arreta zerbitzuak indartu ditu zalantzak argitu eta bezeroei sistema berrira egokitzen laguntzeko.